EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
Gizarte Politiketako Sailburuordetza
*Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES
Viceconsejería de Políticas Sociales
*Dirección de Servicios Sociales*

**Gaia: Gizarte-arloko laguntzei buruzko informazio webgune berria covid-19ren ondorioz.**

**Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailak, SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroarekin** lankidetzan, webgune berria sortu du hainbat eskumen-eremutatik sortu diren gizarte-arloko laguntza eta prestazio ekonomikoei buruzko informaziorako sarbidea errazteko, covid-19k eragiten dituen ondorio negatiboak arintze aldera.

Herritarrei, gizarte zerbitzuetako profesionalei eta Euskadiko hirugarren sektoreko erakundeetako profesionalei zuzenduta dago.

Gordailu bakar batean bildu dira **laguntza berriak**, lehendik dauden laguntzen aldaketak, karga-arintzeak, moratoriak eta luzapen automatikoak hainbat arlotan, batez ere, **oinarrizko premietan** eta **etxebizitzaren alokairuan**. Informazioa etengabe eguneratzen da, ia egunero gertatzen ari diren arau-aldaketei eta -garapenei erantzuteko.

Webguneak hainbat irizpideren arabera, laguntzen bilaketak egiteko aukera ematen du, eta, behin interesgarriak izan daitezkeenak aurkitu ondoren, laguntza bakoitzaren ezaugarriei buruzko informazioa eskuratzeko aukera ematen du (hartzaileak, zenbatekoa, iraupena, bateraezintasunak, sartzeko baldintzak, organo kudeatzailerako estekak, prozedura, datak, etab.)

Ataria esteka honetan dago eskuragarri:
#covid19laguntzak

Jaso ezazue agur bat:

**Asunto: Nueva Web de información relativa a ayudas en el ámbito social debidas al covid-19.**

El **Departamento de Empleo y Políticas Sociales** en colaboración con el **Centro de Documentación y Estudios SIIS**, ha creado una página web que facilita el acceso a la información de las ayudas y prestaciones económicas del ámbito social que han surgido desde distintos ámbitos competenciales con el fin de paliar los efectos negativos que está provocando el covid-19.

Está dirigida tanto a la ciudadanía como a los profesionales de los servicios sociales y de las entidades del tercer sector de Euskadi.

Se reúnen en un único repositorio **nuevas ayudas**, cambios en las ayudas ya existentes, exoneraciones, moratorias y prórrogas automáticas en distintos ámbitos, principalmente las **necesidades básicas** y el **alquiler de vivienda.** La información se actualiza continuamente para dar respuesta a los cambios y desarrollos normativos que se están produciendo casi a diario.

La página web permite realizar búsquedas de las diferentes ayudas por diversos criterios y, una vez localizadas las que pueden ser de interés, permite acceder a la información disponible sobre las características de cada ayuda (destinatarios, cuantía, duración, incompatibilidades, condiciones de acceso, enlaces al órgano gestor, procedimiento, fechas, etc.).

El portal está accesible en el siguiente enlace:
#covid19laguntzak

Reciban un cordial saludo:

**Vitoria-Gasteiz, 2020ko apirilaren 17a**

Marian Olabarrieta

**Marian Olabarrieta Ibarrondo**
**Gizarte Zerbitzuen Zuzendaria / Directora de Servicios Sociales**

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
*Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza*
DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES
*Dirección de Servicios Sociales*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES
2020 API. ABR. 17

| SARRERA | IRTEERA |
|---|---|
| Zk. | Zk. 145279 |